

Samartintxok, mendian gora joian baten,  
basajaunak ikusi ebazan solo baten, lanean-edo.

— *Zetan ete jiharduek?*<sup>dihardue</sup>—esanda, urreratu eta  
zelatan\*egon zan.

— *Gari joten jiharduek!*<sup>dihardue</sup> *Eta, zelako gari piloak!* —inoan—  
*Baserritarrak baino aurreratuago bizi dōzak*<sup>dira</sup> *honeek!*  
*Ogia jaten jōek*<sup>daba</sup> *honeek!*

Eta eureka ziri-zara\*gehiago hurreraturik

— *Emongo deustazuek gari garau batzuk?* —esan  
eutsen, berak gero bere soloan ereiteko asmoz.

Baina basajaunak alkarri begiraturik

entzungor\*egin eutsoen... Zera emon!

— *Ez, ba* —inoan berekautan\*Samartintxok—  
*zelan edo halan lortu egin behar jōat!*

Eta... *DRAK!* Bat batean otu\*jakon burutasun\*on bat. Eta  
hauxe esan eutsen:

— *Postura egiten deustuet*

*gari pilo horren ganetik salto egin baietz!*

— *Ja, ja, ja!* —barre egin eutsoen basajaunak.

Baina, biharamonean, Samartintxo

aitaren oinetako handiak jantzita etorri jaken.

— *Ja, ja, ja!* —barre ostera ere, basajaunak—

*Oinetako astun horreekaz salto egin, zeri? Ja, ja, ja!*

— *Baaat, biii... eta HIRU!*

Han doa gure mutila, zirrin-zarran, "abiadan"\*  
Salto, eta... *BLAUSTA!* Garitzara!

— *Ja, ja, ja! Jo, jo, jo! Ju, ju, ju!*

## gari lapurretan

Barrearen barrez ito beharrean, basajaunak.

Samartintxok, burua makurturik,

alde egin eban handik. Astiro joian,

astiro-astiro, tirrin-tarran\*...

aitaren oinetako handiak... gari alez beteta eroiezalako!

Basajaunak geroago ere

— *Ja, ja, ja!* —barreka inarduen.

Halako baten,

— *Arraio!* —esan eban euretari batek

Samartintxok sartutako ziriak\*konturaturik—

*Garia ostu jeuskuk*<sup>dauku</sup> *honek!*

Eta arrapalada\*baten urten eben danak Samartintxo-ren atzetik.

Samartintxo pago\*harro baten barruan sartu zan

eta han egoan isil isilik eta geldi...

Basajaunak inguruan bila ta bila... Alperrik!

— *Goāzak,*<sup>goazen</sup> *goazak hemendik!* —esanda,

eskuetan eukan harrizko haizkorea jaurti eban, amorruez, batek.

Haizkora hori, *DZART!* Samartintxo egoan arbolea jo eban.

Samartintxo isilik eta geldi...

— *Guzurrak urtengo\*jeutsek*<sup>dautso</sup> *horri!* —esan eban beste batek—

*Garia noiz erein ez jakik-eta!*<sup>daki</sup>

— *Ja, ja, ja!* *Errezoia!* *Ez jakik...*<sup>daki</sup>

— *Ez jakik, eta jakin ere ez jōk jakingo, gure lapurrak!*

Eta pozarren, kantaka hasi ziran

*"Orri irtete, arto ereite;*

*Orri erorte, gari ereite.*

*Lan Lorenzo, ta arbi ereite."*

Samartintxo arbola enborretik entzun egin eban...

eta kantuak inoana gogoan hartu.

*Samartintxo-ren bitartez*

*etorri zan garia Euskalerrira,*

*gure aurretikoak inoenez.*

\* jiharduek (jardun) = zerbait egiten ibili  
\* zelatan egon = acechar  
\* ziri-zara = disimuladamente, suavemente

\* entzungor egin = hacerse uno el sueco  
\* berekautan = bere kolkorako, para sí mismo  
\* otu = ocurrírsele

\* burutasuna = idea  
\* zirrin-zarran = arrastrar los pies

\* abiada = velocidad  
\* tirrin-tarran = bamboleando

\* ziria sartu = iruzur egin, engañar  
\* arrapalada = a carrera veloz, precipitadamente

\* pagoa = haya  
\* guzurrak urten = salir fallidas las esperanzas